



LEGAZPIKO  
UDALA

# LEGAZPIKO UDALAREN IRUDI KORPORATIBOA HAUTATZEKO LEHIAKETA

## HELBURUA

Deialdi honen xedea da logotipo eta irudi korporatibo eguneratua eta modernoa egitea, Legazpiko Udalaren eta udalerraren irudi publiko berezia izan dadin beste administrazio, erakunde eta enpresa batzuen aurrean, gizarte-ingurunearen aurrean, komunikabideen aurrean eta, oro har, gizarte osoaren aurrean.

Irudi berriak honako ezaugarri nagusi hauek bete beharko ditu:

- Sendotasun grafikoa
- Legazpi identifikatzea.
- Bistaratze perfektua eta zalantzarik gabea.
- Arazorik gabe aplikatu ahal izatea.

Prozesu honen helburua ez da armarri ofiziala ordeztzea. Armarriaren lehen ziurtagiri ofiziala 1777koa da, eta 2002an berritu zen. Armarriak Udala ez ezik, Legazpiko udalerrri osoa ordezkatzeko jarraituko du. Kontua da egungo garaiekin bat datorren irudi berri bat sartzea. Irudi berriak Udalaren nortasuna eta modernizatzeko eta bizilagunei eta herritar guztiei, oro har, zerbitzu hobea emateko duen borondatea indartzea eta erakustea ahalbidetuko du.

Irudi korporatibo berria onartu ondoren, Udalak pixkanaka sartuko du egiten dituen dokumentu guztietan, eskutitz, gutun-azal eta bisita-txarteletan, Interneten eta sare sozialetan duen presentzian, bere kontuetatik bidalitako mezu elektronikoetan, udal-ibilgailuetan eta, oro har, modu batean edo bestean parte hartzen duen espazio guztietan.

## PARTE HARTZAILEAK

Pertsona juridikok edo adinez nagusi den edozein pertsona fisikok har dezake parte lehiaketa honetan. Lehiaketan parte hartu nahi dutenek proposamen desberdinak aurkeztu ahal izango dituzte, hiru gehienez, eta horietako bakoitzak bere goitizena eraman beharko du.

Aurkeztutako ideiak berezkoak, originalak eta argitaratu gabeak izango dira. Epaimahaikideek ezin izango dute parte hartu, ez eta ahaidetasun-harremanak dituztenek edo epaimahaikideen abstentzioa eragin dezaketen bestelako zirkunstantziak dituztenek ere.

Parte-hartzaileek ezingo dute beste ezein egileren lana erabili, ez partzialki ez osorik (adibidez, argazkiak edo diseinu-elementuak). Jabetza intelektualagatik hirugarrenekin sor



**LEGAZPIKO  
UDALA**

daitekeen edozein gatazka proposamena aurkezten duen lehiakidearen erantzukizun eskusiboa izango da.

## DISEINUA

Diseinuaren gaia edo arrazoia librea izango da. Bereziki baloratuko da erakundearekin identifikatzea, bai Administrazio gisa duen eginkizunari dagokionez, bai herriko elementuei dagokienez. Epaimahaiak erreferentzia geografikoak, historikoak edo artistikoak ere kontuan hartu ahal izango ditu, baita udalerriko armari ofizialari egindako erreferentziak ere.

Irudiak "Legazpiko Udala" testua izan beharko du, baina irudia testurik gabe ere erabili ahal izateko modukoa izango da.

Teknika librea izango da, baina kontuan hartu beharko da irudi korporatiboa hainbat euskarri eta materialetan erreproduzitu beharko dela.

Diseinuak A4 tamainan aurkeztuko dira, euskarri gogor baten gainean jarrita.

Irudiaz gain, azalpen testu bat erantsiko da, deskribapena, analisisa eta honen definizioa jasoko dituen, eta irudia modu horretan sortzera eraman duen motibazioa erantsiko da.

## SARIA

Diseinurako sari bakarra ezarri da, 1.000 eurokoa. Kopuru horri dagozkion atxikipen fiskalak egingo zaizkio.

## EPAIMAHAIA

Aurkeztutako lan guztietatik, epaimahaiak 2 edo 3 irabazle posible hautatuko ditu. Aukeratutako lanak legazpiarrei erakutsiko zaizkie, eta 18 urtetik gorakoek herri-bozketa batean bidez erabakiko dute horietatik zein den lehiaketaren irabazlea

Honako hauek osatuko dute epaimahaia:

- Mahaiburua: alkatea edo hark eskuordetutako zinegotzia
- Epaimahaikideak: udal-talde politiko bakoitzeko ordezkari bat eta, gutxienez, irudiaren edo komunikazioaren arloko bi profesional

Hona hemen epaimahaiak esleituta izango dituen eskumenak:

- Aurkeztutako proposamenak onartzea. Hori akta batean jasoko du. Akta horretan, hala



**LEGAZPIKO  
UDALA**

badagokio, onartu ez diren diseinuak jasoko dira, baztertuak zergatik izan diren adierazita.

- Lehiakideek aurkeztutako diseinuak eta gainerako agiriak baloratzea.
- Ideia-lehiaketaren ebazpen-proposamena aurkeztea alkateari.
- Oinarri hauek interpretatzea eta ideia-lehiaketa dela-eta sor daitezkeen erabaki guztiak ebaztea.

Epaimahaiak egoki iritziz gero, lehiaketaren saria eman gabe utzi ahal izango da.

### AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Epaimahaiak independentzia osoz hartuko ditu erabakiak, eta zehazten dituzten balorazio-irizpideetan oinarrituta; edonola ere, proposamenaren balio artistiko eta sinbolikoan oinarritu beharko dute. Logotipoaren kalitatea eta irudikapen-gaitasuna baloratzeaz gain, honako alderdi hauek positiboki baloratuko dira:

- Logotipoa etorkizunean sartuko den espazio eta formatuetara (webgunea, kartelak, paper-gauzak, argitalpenak, eraikinak...) nola egokitzen den erakusten duten proposamenak.
- Aurkeztutako logotipoan inspiratutako irudi instituzionalaren eskuliburu bat nolakoa izango litzatekeen erakusten duten proposamenak. Legazpirekin lotura sinbolikoa erakusten duten proposamenak.

### EGUTEGIA

Lehiaketa honen egutegia data hauetara egokituko da:

Proposamenak aurkezteko epea: irailak 13, 15.00rak arte

Epaimahaia proposamenak aurkezteko epea amaitu baino lehen eratuko da.

Ebazpena: ideia-lehiaketa ebazteko azken eguna irailak 30 da, Legazpiko Udaleko alkateak jakinarazi eta onartu ondoren.

Lehiaketa esleitu gabe gera daiteke.

### PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lan guztiak goitzenarekin aurkeztuko dira, lehiakideen anonimotasuna bermatzeko. Identifikatzeko balioko duen goitzen hori aurkeztutako dokumentazio guztian agertu beharko da.



**LEGAZPIKO  
UDALA**

Lanak argitaratu gabeak izango dira, eta formatu inprimatuan eta digitalean aurkeztuko dira. Diseinu bakoitza atzealdean sinatuta aurkeztuko da, identifikatzen duen goitzenarekin. Euskarri digitalean eta paperean aurkeztu beharko da, bi gutun-azal itxirekin batera.

- A gutun-azalak honako hauek jaso beharko ditu: egilearen identifikazio-datuak (izena, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa, faxa eta identifikatzen duen beste edozein datu). Gutun-azal horren kanpoaldean honako datu hauek agertuko dira: A GUTUN-AZALA. Legazpiko Udalaren logotipoa hautatzeko ideien lehiaketa. Lehiakidearen goitizena.
- B gutun-azalak proposatutako diseinua azaltzen duen memoria bat izango du. Memoria horretan logotipoa hainbat espazio eta formatutara egokitzeko moduari buruzko dokumentazioa eta erakunde-irudiaren eskuliburuaren proposamena sartu ahal izango dira. Gutun-azal horren kanpoaldean honako datu hauek agertuko dira: B GUTUN-AZALA. Legazpiko Udalaren logotipoa hautatzeko ideien lehiaketa. Lehiakidearen goitizena.

Lanak eskura entregatu ahal izango dira, Udalaren Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ), erregistro elektronikoaren bidez.

### SARIA ORDAINTZEA

Egin beharreko izapideak egin eta gero emango da saria, lehiaketa esleitu gabe uzten denean izan ezik.

### JABETZA INTELEKTUAL ETA INDUSTRIALEKO ESKUBIDEAK

Saritutako lana Legazpiko Udalaren jabetza eksklusiboa izango da, eta Udalari eskualdatuko zaizkio jabetza intelektualari buruzko legeriak egileari aitortzen dizkion eskubide guztiak, salbu eta legeria horrek berak egileari ukazintzat aitortzen dizkion eskubideak. Nolanahi ere, saritutako lanaren egileek, denbora-mugarik gabe eta munduko herrialde guztietarako, eksklusiban lagatzen dizkiote Legazpiko Udalari saritutako lana ustiatzeko eskubide guztiak, barne hartuta, adibide gisa eta ez zehatz-mehatz, hura aldatzeko, inprimatzeko, argitaratzeko, zabaltzeko eta komunikatzeko eskubideak, edozein prozedura eta modalitatearen bidez, edozein euskarritan eta beharrezkotzat jotzen den guztietan, oinarri hauetan aurreikusitako helburuetarako.

Era berean, Legazpiko Udalak ahalmena izango du irabazleen irudia eta logotipoa egokitzeko, aldatzeko eta/edo eguneratzeko, beharrezkotzat jotzen duen guztietan, behar edo egoera



**LEGAZPIKO  
UDALA**

desberdinetara egokitzeko.

Organo eskudunak egokitzat jotzen badu, Legazpiko Udalak saritutako lana eta lan horren gainean dituen eskubideak inskribatuko ditu beharrezkotzat jotzen dituen erregistro ofizialetan, hala nola Patente eta Marken Erregistroan edo Jabetza Intelektualaren Erregistroan.

Legazpiko Udalaren jabetzakoa izango da lehiaketan onartutako dokumentazio guztia. Epaimahaiaren erabakia jakinarazi eta hilabeteko epean, saririk jaso ez duten lehiatzaileek beren lanak eta egin ahal izan diren kopiak jaso ahal izango dituzte. Epe hori igarota, Udalak libreki erabili ahal izango ditu erretiratu gabeko lanak.

### OINARRIAK ONARTZEA

Idea-lehiaketa honetara aurkezteak berekin dakar lehiakideek oinarri hauek ezagutzea eta onartzea.

### HAUTATUTAKO LOGOTIPOAREKIN LOTUTAKO LANAK GARATZEA

Idea-lehiaketa hau ebatzi ondoren, Udalak, beharrezkoa izanez gero, logotipoa egokitzeko lanak kontratatuko ditu, eta kontratu hori ideia-lehiaketaren irabazleari esleitu ahal izango dio, baldin eta lehiaketaren jarraipena bada, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera posible bada.